

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure produktua bezeroengana transmititzeko hainbat kanal ditugu, hasteko, kirola sare sozialetan egiten duten influencers-ekin kontaktuan jarriko gara eta zapatila pare batzuk oparituko dizkiegu beraien sare sozialetan argazkiak edo bideoak igotzearen truke. Gaur egun, sare sozialak; hala nola instagram eragin handia dute produktu berriak promozionatzerakoan, influencerrak eragin handia dute beraien jarraitzaileengan eta beraz, hauek produktu berri bat izaterakoan jarraitzaileak produktu bera nahiko du.

Bestalde, telebistako kanal desberdinetan iragarkiak jarriko ditugu, adibidez, EITB-n jende asko ikusten duenez gure bezero kantitatea handituko duelako, iragarkian zapatila eta zola modelo desberdin guztiak erakutsiko ditugu. Baita, Diario Vasco-n orrialde bat jarriko dugu gure zapatilen funtzioa explicationez eta argazki batzuk txertatuz.

Salmenta kanalarik dagokionez, amazon-ekin kontratu bat sinatu dugu gure zapatilak saltzeko bestalde denda fisikoetan salduko ditugu ere, gure saltzaile nagusia JD sports izango da baina beste hainbat dendarekin kontratuak sinatuko ditugu ere, adibidez, Forum Sport, Dooers, Decathlon, Sprinter...

Horrez gain, Gaztea irrati kanalarik hizketan gabiltza gure produktuaren iragarki batzuk egiteko. Azkenik, El Corte Inglés-rekin kontratu baten bila gabiltza, oso saltzaile ona iruditzen zaigulako Espainiako ia hiri guztietan dendak dituelako.

Zapatilen entrega eta salmenta egin ondoren, gure bezeroei txarteltxo bat emango diegu bertan QR bat aurkituko dute eta han zapatilak probatu ondoren beraien esperientzia komentatu dezakete, produktuaren inguruan zalantzak dituztenei argitzeko.